

## I Eranskina : VI. EHU Irrati Maratoia. Edukien laburpena

TXANDAK			
Ordua	Taldea	Edukiak	Elkarrizketatua
10.30	7. taldea. Julene Flamarique, Ibai Irasuegi, Malen Frantsesena, Amaiur Irazabal eta Julen Lejardi	Albisteak: Euskararen eguna, Euskaraldia, Azterketak euskaraz egiteko aldarrikapena Bordelen, Euskal Herriko Unibertsitate ezberdinetan Euskararen egunagatik eginiko ekintzak, Gaztealdia Erreportajea: Euskararen eguna Leioako Kanpusean	Iñaki Lazkano, EHU euskarazko edukiak irakasten dituen irakaslea.
10.50	13.Taldea: Julen Urrestarazu, Igone Urtaza, Asier Saez, Imanol Uriarte	Kultura. Albisteak: finalurrekoen bigarren itzuliko bigarren saioa Baionan; BustitzenNaiz, EITB MARATOIKO erronka berria; Desakatoren banaketa; Maketa lehiaketa. Erreportajea: Bertso Txapelketa nagusien atzean.	Araitz Uria, Distopia musika taldeko kidea
11.10	2.Taldea: Zuberoa Anaut, Ugaitz Antolin, Denis Marcaida eta Naroa Apaolaza	Gaia: Kontsumo Jasangarria. Albisteak: Black Fridayen neurritz gaineko kontsumoa, Euskadi Bono denda, Euskadiko turismo, kontsumo eta merkataritza sariak, ONUk Bilbon egoitza jarri du 2030ko agendaren garapenerako. Erreportajea: Bidezko merkataritza arropa sektorean	Ainhoa Elejalde, Kontsumobideko kidea
11.30	3.Taldea: Julen Borreguero, Andeka Arellano, Asier Aurrekoetxea eta Jouloud Ballas	Gaia: Ikasleen osasun mentala. Albisteak: lanbide-heziketako irakasleak kexatu egin dira beraien ikaslegoaren osasun mentalaren desarretagatik katalunian, ikasleak manifestatu egin dira Espainia osotik osasun mentalaren defentsa egiteko, Hiru humanitate ikasleek buruaz beste egin ondoren, ikaskideek osasun mentalaren inguruko kabinete bat egitea eskatu dute Argentinan, Buruko gaitzak artatzeko baliabide gehiago eskatu dituzte osasun mentalaren nazioarteko egunean. Erreportajea: Osasun mentala hezkuntzan, hezkuntzarekin zerikusia duten pertsonen iritzia	Ines Hernández eta Aner Idigoras
11.50	1.Taldea: Ainhoa Espinoza, Nagore Abasolo, Elene Abaroa eta Asier Arbelaitz	Gaia: EUSKAL KULTURA. Landuko diren albisteak: Euskaraldia, Bertsolaritza, Hertzainak, Euskararen eguna. Erreportajea: Durangoko Azoka	Esti Markez, abeslaria eta musikaria
12.10	MAHAI INGURUA		
12.40	8.Taldea: Adur Sarasua, Eneko Moreno, Jon Muñoz eta Markel Mier	<b>Gaia:</b> 2022ko Qatarreko mundialari loturiko albisteak <b>Albisteak:</b> Mundialaren antolakuntza txarra, gaizki dauden taldeak, lesionatuak eta belaunaldi-aldeaketa	2022ko Qatarreko Munduko Txapelketa AitorAzkorra, futbol arloko entrenatzailea

		<b>Erreportajea:</b> Mundialetan egon diren jokalari euskaldunak	
13.00	9.Taldea: Unai Nuñez, Julen Ugartemendia, Aitzol Unzueta eta Koldo Villanueva	Kirolaren gaurkotasuna: 2022ko Qatariko Mundialaren azken albisteak (futbola), saskibaloiko euskal taldeen azken emaitzak eta albisteak, pilotaren azken txapelketak, kirolaren munduan sortutako polemikak... Erreportajea: Euskal Kirolak →kirol desberdinen euskal taldeei buruz hitz egingo dugu	Iñigo Sanz, Bilbao Basket saskibaloiko taldeko bazkidea
13.20	11. Taldea: Ainara Rodil, Sandra Rodriguez, Ian Ruiz eta Eneko Gallastegi	Gaia: Hedabide tradizionalak vs plataforma berriak Albisteak: Gazteen iturri nagusiak Tiktok eta YT; Twitch: zuzeneko bideoen plataforma erabiliena; Sorgindu podcast berria. Erreportajea: Erreportaia ohiko hedabideetan oinarritzea erabaki dugu, telebista zein irratietan. Horrela, ohiko hedabideetatik hedabide berrietara egiten ari den aldaketa eta haien arteko desberdintasunak aipatuko ditugu.	Beatriz Zabalondo
13.40	4.Taldea: Leire Barreras, Eneritz Casillas, Garazi Cuadra eta Aitor Iparraguirre	Kirolean emakumeek jorratzen duten papera eta diskriminazioa: Elnaz Rekabi eskalataileak urriaren 16an painuelu gabe leiatu zen, Seulen, eta beldur da bere herrialdera heltzean atxilotua izatea. Bermeo eta Mundakako "Urdaibai" eskubaloiko taldean emakume talde gaehiago daude gizonezkoenak baino, aurreko urtearekin alderatuz. Euskal Herriko emakumeen arraun taldeek gizonezkoen sari berdina jasotzea eskatu dute. Bartzelonako umeen talde batek gorrotozko irainak pairatu ditu partidu batea. Erreportajea: Gizonezkoen eta emakumezkoen soldata desberdintasuna kirolean	Malen Ormaetxea
14.00	6.Taldea: Julen Martín, Markel Francia, Urko Garcia eta Eneko Lazpita	Gaia: Osasun mentala. Osasun mentala eta kirola; Osasun mentala famatueta; Osasun mentala Txinan; Osasun mentala eta sare sozialak. Erreportajea: Osasun mentala unibertsitateko ikasleetan	Ivan Sanchez psikologia ikaslea
14.10			
14.30	5.taldea: Ane Feijoo, Lucía Izquierdo, Zihara Jainaga, Idoia Marín	Lanbide Heziketa eta Unibertsitatea: Lanbide Heziketaren VI.plana onartu dute; Oinarrizko LHN eskainitako lekuen %89a A ereduak dira; Confedebaskek Lanbide Heziketaren aldeko apustua egiten jarraitzearen alde egin du; Bergarako Miguel Altuna Lanbide Heziketako ikastetxea Espainiar estatuko bikaintasun sareko kide izendatu dute. Erreportajea: Unibertsitatea edo Lanbide Heziketa egiteko hautuaren nondik norakoak eta bilakaera	Gorka Moreno EHuko Bizkaiko campuseko errektoreordea

14.50	12.Taldea: Ander Santiago, Jon Urieta, Unai Seoane Bueno, Iker Sojo	Gaia: Urte honetan futboleko egon diren jaitsierak. 3. Mailako taldeen salaketa 2021/2022ko denboraldiko jaitsiera kopuruak direla eta. <i>Bizkerre</i> eta <i>Astrabudua</i> "B"ren desagertpenak. <i>Arraultzaldeon</i> taldearen jaitsiera <i>Play off</i> -a. Urko Ugarte jokariaren erreportaia	Andoni Santiago, Arraultzaldeon futbol taldeko lehendakaria
15.10	MAHAI INGURUA		
15:30	10.Taldea: Unai San Pedro, Olatz Pazos, Nerea Pagazaurtundua, Unai Peral	Kazetarien lanbidearen egoera: Kazetaritza proa; Bokaziogatik lan egin; Kazetaritza ikasten dutenen lan alternatibak. Erreportajea: Kazetaritza ikasi kazetaria izateko?	Jose Mari Pastor, UPV/EHU-ko irakaslea eta kazetaria

## II. Eranskina

Berrian Argitaratutako zutabea:

<https://www.berria.eus/paperekoa/2000/044/002/2022-11-27/irradi-maratoia.htm>

# berria



Gizartea Politika Ekonomia Mundua Iritzia Kultura Kirola Bizigiro Berria TB

Bizigiro

IRRATIA

## Irrati maratoia

2022ko azaroak 27



Hurrengo ostiralean, abenduak 2, EHUko Gizarte eta Komunikazio Zientzietako Fakultatean irradi maratoiaren beste edizio bat egingo da. Lau orduz, kazetaritzako ikasleek aukera izango dute benetako programazio bat aurrera eramateko. Ez dute entzule kopuru handirik izango: Leioako campuseko Mikel Laboa plazatik pasatuko diren ikasle eta langileak eta fakultateko Audiolaberen inguruan ibiliko direnak, baita Youtuberen bidez *streaming* bidez jarraituko dutenak ere. Oso ekitaldi xumea. Irratiko ikasle eta irakasleok, ordea, asko gozatzen duguna.

Duela sei urte, Leire Iturregi kazetaritzako irakaslea irratiarekin lotura genuen irakasleongana hurbildu zitzaigun proposamenarekin: Euskararen Eguna ospatzeko irradi maratoia egitekoa, alegia. Bere gogoberotasuna kutsatu zigun, eta bat egitea erabaki genuen. Ordutik aurrera, abenduko hitzordua dugu —soilik pandemiak bertan behera utzi zuen, 2020an—, eta Leirerekin partekatzen ditugu, ez soilik irradi une horiek, baita teknikaren ustekabeen edo gonbidatuen hutsuneen beldurrak azken momentuak sortzen dituen urduritasunak ere —eta kafea eta hamaiketakoa, noski—. Amaitzen denean, berriz, irribarrez aritzen dira parte hartzaileak; irratietan bezala, dena ondo doa, eta kantak zein adierazpenak behar diren momentuan sartzen dira.



Arantza Gutierrez

Ikasleek berek aukeratzen dituzte gaiak. Hasieran Leirek jartzen zituen — lehenengo saioan unibertsitatean euskarak duen presentzia izan zen hari gidaria —, baina ondoren erabaki zuen gazteek berek egin zezatela, eta konturatu da urtez urte antzeko edukiak lantzen dituztela. Eskola praktikoetan prestatzen dute eta emisio egunean zuzenekoaren kilimak bizitzeko aukera dute. Gehientzat lehenengo aldia da.

Fakultateak izan zuen programazio oso bat eskaintzen zuen irrati bat 1980ko hamarkadan eta 1990ekoaren hasieran. Teilatuan zegoen igorgailu batetik uhinetaritzen zen, eta garai hartako errektoretzak *baimen* bat sinatu behar izan zuen Poliziak ixtea eragozteko. Orduan, oso gutxi ziren euskaraz eskaintzen ziren saioak, «euskal adarra» deitzen zeneko ikasleek egindakoak. Aurrerago, irrati emanaldien ideia bi alditan berreskuratu zen, baina eraikinaren moldaketak eta ikasketa plan berriek asko zaildu zuten unibertsitate-irrati bat izateko aukera. Orain, sikiera egun batez, Audiolab ikasgela irrati estudio bilakatzen da. Euskaraz, gainera.

#### Sareko BERRIAzalea:

Udazkenean, BERRIAlagun egiteko pausoa eman dezazun, eskaintza bat egin nahi dizu BERRIAK. Herri baten kulturaren plaza da BERRIA. Kultur egitasmo, dinamika eta ekitaldi anitzen erakustoki. Euskal kulturaren inguruko informazioaren plaza handia. Azaroan eta abenduan, Euskaraldiak, Bertsolari Txapelketa Nagusiak eta Durangoko azokak hartuko dituzte, besteak beste, BERRIaren orrietako asko, paperean eta webgunean.

Albiste asko irakurriko dituzu, segur aski webgune honetan bertan. Eta eskari bat egin nahi dizugu: har ezazu konpromisoa irakurtzen duzunarekin. Irakurleen babes ekonomikoa funtsezkoa da BERRIaren etorkizuna ziurtatzeko.